Familia horiek:

Datorren ostiralean, otsailaren 9an, inauterietako jaia ospatuko dugu eskolan.

Aurten, mozorrotzeko aukeratutako gaia **ARTEA** izango da. Egun horretarako programa honako hau izango da:

<table>
<tr><td>9:45</td><td>Lehen Hezkuntzako 5. Eta 6. mailak Udaletxeak antolatutako inauterietako desfilera joango dira Enparantza Berriraino eta han txokolatada izango dute.<br><br>*Euriagatik Udalak antolatutako desfilea bertan behera geratzen bada, ziklo hau Lehen Hezkuntzako ekitaldian, eskola barruan, geratuko da.</td></tr>
<tr><td>10:15</td><td>Lehen hezkuntzakoek (1. Eta 2. zikloak) haurreskolako patioan, desfilea eta koreografia dantzatuko dute.<br>Lehen Hezkuntzako familiak soilik sartu ahal izango dira.</td></tr>
<tr><td>11:00</td><td>Haur Hezkuntzako ikasleen ekitaldia eskolan barruan ospatuko da.<br>Haur Hezkuntzako familiak soilik sartu ahal izango dira.</td></tr>
<tr><td>11:30</td><td>TXOKOLATADA (barruan)<br>Horretarako, Lehen Hezkuntzako ikasleek_edalontzi edo katilu bat ekarri beharko dute etxetik.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Euria egiten badu, 10:15ean lehen hezkuntzako ikasleak eskolan barruan arituko dira eta lehen hezkuntzako familiak soilik sartu ahal izango dira ikustera. Ondoren, irten egin beharko dute Haur Hezkuntzako familiei sartzen uzteko (11:00etan)<br><br>TXANDAK ETA ORDUAK ERRESPETATZEKO ESKATZEN DIZUEGU.</td></tr>
</table>

Gogoan izan egun hori **lanaldi trinkoa dela**, eta, beraz, eskola-ordutegia honako hau izango dela:

<table>
<tr><th colspan="2">SARRERAK</th><th colspan="2">IRTEERAK</th></tr>
<tr><td>9:00etan</td><td>Lehen Hezkuntza</td><td>13:00ean</td><td>Jantokian geratzen EZ direnak</td></tr>
<tr><td rowspan="4">9:30ean</td><td rowspan="4">Haur Hezkuntza<br>(lehen hezkuntzan neba-arrebak dituztenak izan ezik, 9:00etan etorri ahal izango baitira)</td><td colspan="2">Jantokian geratzen direnak</td></tr>
<tr><td>14:30ean</td><td>Lehen Hezkuntza</td></tr>
<tr><td>14:20an</td><td>Haur Hezkuntza</td></tr>
<tr><td>14:30ean</td><td>Eskola-autobusa</td></tr>
</table>

Gainera, kontuan izan astelehena, **otsailaren 12a**, eskola-egutegiaren arabera**, jaieguna dela.**

Eskerrik asko zuen laguntzagatik eta partaidetzagatik.

Agur bero bat,

Zuzendaritza-taldea